

## **EH BILDUK gaur egungo polizia komisarioa hobetzeko proiektua aurkeztu du**

**EAJ-ak Komisaldegi berri bat eraiki nahi du hirigunetik kanpo eta horretarako, lurak erostea proposatzen du, 700.000 euroren truke. EH Bilduk, ostera, egungo komisaldegia berritzeko eta hobetzeko alternatiba bat aurkeztu du, 280.000 euroko kostuarekin (% 60 merkeago). “Gure asmoa da herritarrengandik hurbilago dagoen udaltzaingo eredu bat bultzatzea eta diru publikoa eraginkortasun handiagoz erabiltzea”, EAJren proposamenarekin alderatuta, bere alternatiba abian jartzeak ekarriko lukeen aurrezkoa aipatuz.**

### **700.000 euro komisaldegi berri baterako lurak erosteko**

EAJk Patricia Alfonso Podemoseetik kanporatutako zinegotzi transfugari esker atera zituen 2022ko udal aurrekontuak. EH Bilduk aurka bozkatu zuen, bai gobernu-taldearen kudeaketarekiko mesfidantzagatik (gogoratu 2020/2021 aurrekontu-akordioaren haustura), bai zenbait aurrekontuetan aipatzen ziren zenbait proiekturen aurka zegoelako, besteak beste, 700.000 euroko kostua zuen polizia-etxe berri baterako lurak erostea.

Otsaileko osoko bilkuran, lur horiek erosteko partida behin betiko onartu zen, berriz ere zinegotzi transfugari esker. EH Bilduk argi hitz egin zuen osoko bilkura horretan: “EAJk 700.000 euroren truke lursailak erosi nahi ditu polizia-etxe berri bat eraikitzeko, eta liburutegi berrirako 550.000 euro baino ez ditu finkatzen, eta ez du argi eta garbi aipatzen EAJ/PSE gobernu-taldeak Loroñoko egungo aparkalekuko lurak egokitzeko hartu duen konpromiso zehatza, Zipiriñeren espazio arazoak konpontzeko”. Horrez gain, EAJren makro-proiektuari martxoan bertan alternatiba bat aurkeztuko geniola esan genuen.

### **Esan eta egin**

EH Bilduk martxoko herritarren segurtasunerako batzorde informatiboan aurkeztu zuen **ELEIZALDE KALEKO KOMISALDEGIAREN BERRITZE PROIEKTUA**, eta batzorde horretan bertan proposamenaren ildo nagusiak azaldu zitzaizkien udal talde guztiei eta udaltzainen buruari. Gainera, proposamen hori zuzenean helarazi zaio Sopolako Udalean gehiengo duen sindikatuari, ELA sindikatuari.

Proposatutako birbanaketan, herritarrei arreta emateko komisaldegi bat irudikatzen dugu, lan-gune eroso eta zabalekin, udaltzaingoari dagozkion lanak egiteko segurtasun-baldintza egokiak bermatuz. Gainera, jendearen arretarako gune abegitsu bat lortzen saiatzen da, herritarrenganako hurbiltasuna ere bultzatuz. Hori guztia laneko segurtasunaren, irisgarritasunaren eta eraikuntzaren arloan indarrean dauden araudi aplikagarriak kontuan hartuta.

### **«Gure proposamena EAJrena baino hobea da»**

EH Bilduren iritiz, gaur egungo komisaldegia udalerrriaren erdigunean mantentzeak erraztu egiten du herritarrek beren zerbitzuak eskuratzea (galdutako objektuak, salaketak...), eta harreman atseginagoa eta hurbilagoa ahalbidetzen du herritarren eta udaltzaingoaren artean.

Izan ere, EAJren proposamenaren kokapena (Sopolako erdigunetik kanpo) eta kostu handia (700.000 euro soilik lurren erosketan) dira EH Bilduren proposamenaren oinarrian dauden arrazoiak: “Gure asmoa da herritarrengandik hurbilago dagoen udaltzaingo eredu bat bultzatzea

eta diru publikoa eraginkortasun handiagoz erabiltzea”, EAJren proposamenarekin alderatuta, bere alternatiba abian jartzeak ekarriko lukeen aurrezkoa azpimarratuz.

Kontuan izan behar dugu gaur egun Sopelak ez duela liburutegi berririk, ez dagoela gazteentzako espazio nahikorik, kirol-instalazioak eskasak direla, Zipiriñeren eta Iberreren espazio-arazoei ez zaiela oraindik irtenbiderik eman... Udaltzaingoaren eraikin berri bat baino lehentasun gehiago daude herrian. Azken finean, gure proposamena EAJrena baino hobea da.

## **EH BILDU presenta un proyecto para mejorar la actual comisaria de policía**

**A diferencia del proyecto del PNV/PSE (apoyado por la concejala tráfuga) que proponen comprar terrenos fuera del casco urbano por valor de 700.000 euros para la construcción de un nuevo edificio que albergase una nueva jefatura de Policía Municipal, EH Bildu ha presentado un proyecto para renovar y mejorar la actual comisaria, con un coste aproximado de 280.000 euros (un 60% más barato que la compra de terrenos que quiere realizar el PNV). “Nuestra intención es impulsar un modelo de policía municipal más cercano a la ciudadanía, además de realizar un uso más eficiente del dinero público”, en relación al ahorro que supondría poner en marcha su propuesta con respecto a la del PNV.**

### **700.000 euros para comprar terrenos para una nueva comisaria.**

El PNV sacó los presupuestos municipales 2022 gracias a la concejala tráfuga expulsada de Podemos Patricia Alfonso. EH Bildu votó en contra, bien por la desconfianza con la gestión del equipo de gobierno (recordar la ruptura del acuerdo presupuestario 2020/2021), bien porque se oponía frontalmente a ciertos proyectos, entre ellos, la compra de terrenos para una nueva comisaría de policía municipal por valor de 700.000 euros.

En el pleno de febrero, se aprobó definitivamente, también gracias a concejala tráfuga, esta partida para la comprar de dichos terrenos. EH Bildu fue clara: “El PNV se propone adquirir terrenos por 700.000 euros para la construcción de una comisaría de policía, mientras solo fija 550.000 euros para la nueva biblioteca y no hace una referencia clara e inequívoca al compromiso del equipo de gobierno PNV/PSE de adecuar los terrenos del actual aparcamiento de Loroño para un nuevo edificio educativo que solucione los problemas de espacio de Zipiriñe”. Además, nos comprometíamos a que en marzo presentaríamos una alternativa a este macro-proyecto de nueva comisaría.

### **Hacemos lo que decimos y decimos lo que hacemos**

Dicho y hecho. EH Bildu presentó en la comisión informativa de seguridad ciudadana de marzo el proyecto “REDISTRIBUCIÓN DE COMISARÍA EN CALLE ELEIZALDE S/N EN SOPELA”, en la que se expusieron las líneas generales de la propuesta a todos los grupos municipales y al jefe de policía local. Además, esta propuesta ya ha sido también transmitida directamente al sindicato mayoritario en el Ayuntamiento de Sopela, el sindicato ELA.

En la redistribución propuesta se trata de crear una comisaría de atención ciudadana y espacios de trabajo cómodos, amplios y con unas condiciones de salubridad adecuadas para desarrollar los trabajos propios de la policía municipal. Además de tratar de conseguir un espacio para atención al público que sea acogedor y denote una cercanía hacia los ciudadanos. Todo ello teniendo en cuenta las normativas de aplicación vigentes en materia de seguridad laboral, accesibilidad y de edificación.

### **“Nuestra propuesta es mejor que la del PNV”**

En opinión de EH Bildu, la ubicación actual de la comisaría en el centro del municipio facilita el acceso de los ciudadanos a sus servicios (objetos perdidos, denuncias...) y permite una relación más amable y cercana entre los ciudadanos y el colectivo de seguridad del municipio.

Y es que la ubicación de la propuesta del PNV (fuera del centro de Sopela) y su alto coste (700.000 euros sólo en la compra de los terrenos) son las razones que fundamentan la propuesta

de EH Bildu: “nuestra intención es impulsar un modelo de policía municipal más cercano a la ciudadanía, además de realizar un uso más eficiente del dinero público”, en relación al ahorro que supondría poner en marcha su propuesta con respecto a la del PNV.

“Tenemos tener en cuenta que a día de hoy Sopela no tiene nueva biblioteca, no hay espacios suficientes para jóvenes, las instalaciones deportivas son deficientes, no se les ha dado aún solución a los problemas de espacio de Zipiriñe e Iberre... hay otras prioridades que una nuevo edificio de policía municipal. Nuestra propuesta es mejor que la del PNV”.